

GERRA BATEKO GUDA

Hemen gerade lagun haundiyak

gaur festara etorriyak

pixkat edanda aztutzen dira

gerraren pena gorriyak.

Kontentu asko hementxe gaude

maiaren bueltan jarriyak

guk e bertsotan badakigula

jakin dezala herriyak.

Oraindik buruan darabilki herriko haurrek abestu dioten bertsoa. Bereganara propio hurbildu dira oraindik 8 urte bete ez dituzten umeak, gerraren aurpegi latza bisaian daramaten haur gosetiak; eta desafio moduan kantatu diote bertsoa. Konturatu dadin.

Konturatu dadin, baina batez ere; lotsatu dadin.

Bere ia 70 urterekin, sasoiko dago oraindik Koxme. Beharko sasoiko egon, gainera. Orain dela dozena bat urte alargun gelditu zenetik, Igartubeitiko lanak aurrera ateratzeko bere indarraren premiaz aurkitzen delako familia. Edo gelditzen zaion familia apurra, bederen: bi semeak eta alaba.

Emaztea, heriok eraman zion eritasun latz baten ostean eta bixkiak, semerik gazteenak; gerra malapartatu hark erauzi zizkion, karlistekin borrokatzeko hautuaren diktadurapean erori zirenean.

Bere sasoi-puntua baliatuz, arineketan iritsi da Igartubeitira, bere etxera. Haziendan, zaldiak lasai ikusi ditu bazkan, zelaian oraindik gelditzen zaien belar apurra janaz. Ikuiluan sartu denean osterara, beste behin; bihotza gelditu zaio.

- Kaka!!-oihu egin du, arrazoi osoz; eguerdia ongi pasea den arren ikuiluko lanak egin gabe daudelako oraindik.

Azpiak ateratzeko daude oraindik eta esnea ematea xede duten behi lasaiek, hausnarrean aritzerik ere ez daukate; belar zipitzik ere geratzen ez zaielako.

- Gaur ere, behiek barau!!!- garrasi egin du, ustez beretzako. Behiek begiratu egin diote.

Gora igo da segidan, eta hogei eta hogeita bi urteko bi semeak txapetan jokatzen eta koplatan harrapatu ditu.

Hirea eztek normala!

mutila ezta kabala

ematen baitu txapatxo hori

karakolak eiña dala.

Txorakeritan ez hasi

behar zenduke ikasi

karakol honek zure bareai

baietz berriz irabazi.

- Gaur bezalako egun seinalatu batean... eta ezin egokitzen zaizuen egin!!- bota die tupustean aitak.

Azkar eman dute bira bi semeek, eta lotsagorritu gabe, betikoari ekin diote.

- Honek berea egin balu, nik jarraituko niokeen...
- Gaur berari tokatzen zitzaion hastea!!
- Eztek horrela, Joxe, etzakela gezu...

“NAHIKOA DA!!!!” orru egin du Koxmek indar biziz. Bere neurrigabeko haserrearen barruan, sukaldea beti bezain txukun dagoela konturatzeko gai izan da. Alaba jostuna, herrira jaitsia da egunero bezala bere zereginetara, baina aurretik etxeko-lan guztiak eginda utzi ditu. Begiratu gabe ere badaki Koxmek, gainontzeko beste gela guztiak ere garbi utziko zituela.

Ia bi hamarkada dira jada Igartubeitin bizi direla maizter, inguruetako baserriar gehienak bezala. Baserria euren ez izan arren, bizitokia euren balitz bezala zaintzen irakatsi dio Koxmek alabari, ez ordea semeei. Azkenaldian ordea, gerraren kalteak direla eta, baratzak eta zelaiak txiki-txiki eginda dituzte; eta ia ez dira errenta ordaintzeko gai. Lehen zorretan zeudenak, orain inoiz baino zorpetuago bizi dira. Jauntxoari hilabete batzuetan ia ezin ordaindurik ibili da Joxe, baina antza; bere bi semeek ordaindu dizkiote zorrak.

Hori suposatzen du Koxmek behintzat, zorrak ordaintzeko ezintasuna azaldu izan dietan, handik gutxira jauntxoak esan izan diolako zorra kitatua zela erabat, bere jauregi aurreko ateetan “Igartubeiti” jartzen zuen txanpon-zaku bat agertzen zelako aldiro.

Koxme hitz gutxikoa izaki, inoiz ez da ausartu bere semeekin garbi hitz egiten diruari buruz; are eta gutxiago bere alabari; hark gizon-kontuei buruz jakin dezan ez da komeni-eta. Horregatik, orain artean bere bi seme kalamidade horiek maitatzeari ezin izan dio utzi Koxmek.

Baina gaur, hitzordu garrantzitsua dute. Gaur da eguna. Edo, gaur zen eguna... Bere seme-alabekin elkartu eta baserriaren ardura nori ematen zion argitzekoa zuen. Maiorazgoaren bueltan hitz egitekoak ziren... goizeko afera gertatu den arte!!

Halako batean, alaba etxeratzen somatu dute. Sukaldean zain ditu hirurak eta bertara iristean, kopetilun ikusi ditu.

- Herentziari buruz hitz egin aurretik, jada haserre?- bota nahi izan die jolas-tonuan 16 urteko alaba langileak.

Aitak hartu du hitza.

- Ezer kontatze korik baduzu?
- Ez, ez nik dakidala behintzat...- urduri jartzen hasi da Ixabel.

Aitarene ondoan esertzen saiatu denean, hark aulkia kendu dio gartsuki.

- Iganeko jostunen bazkarian, zer demontre gertatu zen?!

Mundua gainera erori zaio Ixabeli. Ez zuen uste bere aitaren belarrietara iritsiko zenik. Hitz eman zioten besteek. Baina, bazkaria liseritzearekin batera; norbaitek hitza jan zuen.

- Tira, agian, behar baino baxoerdiren bat gehiago edango nuela nahi...
- "Gehiegikeria" hori, niretzat txikikeria bat da!! Eta gero zer?- orru egin du aitak.

Kitto. Bazekien. Gehiago ez disimulatzea erabaki du Ixabelek.

- Mahai baten gainean bertsoan aritu izanak lotsarazten zaitu? Zure alaba ezjakina, artea egiteko gai dela jakiteak penatzen zaitu?

Ukabilez indartsu jo du mahaia aitak.

- Kitto!! Artea baino, desastrea da hori!! Ez zara gehiago emakume hoiene artera joango, txolinkeriak egitera!! Hemendik aurrera baserrian egongo zara egun santu...

Ixabelen mihiak, miztoa izateari egin dio bide.

- Ah bai? Eta nork ordainduko ditu maizter izatearen diruak? Zure bi seme ez-deus hoiek? Hori ere, nik egin behar izan baitut!!!

Koxme isilik gelditu da, lurjota. Bere bi seme alferrek errenta ordaintzen ziotela pentsatu izana ere... Baina nola? Nola pagatu du Ixabelek josten ateratako guztia berari ematen bazion? Bere gorputza salduta?

Gogoia irakurri izan balio bezala, jarraitu du Ixabelek.

- Bertso paperak, aita, bertso-jarriyak! Txanpon batzuk halaxe atera ditut ixilka, Antton errementiaren bidez enkarguz, herriak uste baitu hark bertsoan badakiela...

Koxme ez da gai ezer esateko. Bere bi semeek burumakur jarraitzen dute alboetan. Ixabelek jarraitu du.

- Aita, jostundeguan hitz egin eta kantatu egiten dugu. Eta zer da ba, bertsoa? Hitz abestua! Eta bertsoak, arazoei, munduari eta gure unibertsoari buruz hitz egiteko aukera ematen digu. Gerra baten tristuran murgilduak gaude, biktima herria dena. Baina herri horren barruan, gu; emakumeok bigarren mailako beste biktima batzuk gara. Zuek sagardotegietara joanda 3 egun erraz pasa ditzazkezue guk arropak eta muda eramanda... Beti zuek, gizonak, zarete protagonista; zuena da herriko plaza baina guk ondoko kaleetan egiten dugu lan. Zuek armak hartzean, guk ateratzen ditugu aurrera familiak. Zuena, gizonena, da ahotsa baina guk pasatzen diegu hizkuntza eta kantua umetxoei. Zuena lana omen da, eta gurea; gauza bera izanik, eginbeharra. Nirekin behintzat jai duzu...ez naizen zeozer izan nadin nahi baduzu, nik alde egingo dut hemendik!!

Alabaren erretolikaren ondoren, erabakia hartu zuen Koxmek. Nahiago izan zuen alaba ezkutuko bertsolaria izaten jarrai zezan, bestela beste aukera okerragoa datekeelako.

Bestela, bertsoak berari jarriko dizkiotelako.